

A FASEA – GJHEN KOMIKIEN AZTERKETA (3 SAIO)

HASI AURRETIK

.Jarraian dituzu saioekin hasi aurretik kontuan hartu beharreko eta prestatu beharreko lau (4) urrats nagusiak:

- 1. Irakurri proposamen didaktikoa:** Irakurri arretaz proiektuaren proposamen didaktikoa (komiki-ekin.eus). Horrela, jardueren helburuak eta GJHen arteko lotura zientifikoa argi ulertuko dituzu.
- 2. Prestatu lehen saioa:** Sei (6) komikien artean, aukera ezazu zein komiki landuko duzuen lehen saioan. Komiki hori klase osoarekin, talde handian, aztertuko da.
- 3. Antolatu taldeak:** Bigarren saioan hasi aurretik, antolatu ikasleak talde txikitik (3-5 ikasleko taldeak gomendatzen dira), eta esleitu talde bakoitzari gainerako komikietako bat lantzeko.
- 4. Prestatu ebaluazio tresnak:** Ziurtatu ebaluazio-tresnak (komiki-ekin.eus/ebaluazioa) ezagutzen dituzula eta prest dituzula, ikasleen lana eta lortutako kompetentzia-maila modu koherentean ebaluatzeko. Hauek dira erabiliko ditugun tresnak:
 - Errubrika analitikoa (irakaslea)
 - Ahozko aurkezpenaren kontrol-zerrenda. (irakaslea eta ikasleak)
 - Autoebaluazio fitxa (ikasleak)
 - Koebaluazio fitxa (ikasleak)

Ziurtatu ikasleek ere ezagutzen dituztela ebaluazio-irizpide nagusiak. Horrek lagunduko die ikasleei hasieratik ulertzen zer espero den haien lanetik eta nola baloratuko den sormen-prozesua zein azken produktua.

Oharra: Komiki bakoitzaren Fitxa Didaktikoak baliabide eta ideia ugari eskaintzen ditu, baina ez da jarraibide hertsia. Irakasleak askatasun osoa du bertako ideiak, galderak eta baliabideak (adibidez, hiztegia, jarduerak, datuak edo webguneak) bere ikasgelako beharretara egokituz erabiltzeko.

ZER EGINGO DUGU?

Ikasleek Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) modu erakargarri eta interaktiboan ezagutuko dituzte komikien irakurketa, azterketa eta eztabaida gidatuen bidez. Helburua da GJHen oinarritzko kontzeptuak ulertzea, pentsamendu kritikoa sustatzea eta ikasitakoa praktikan jartzea.

A faseko jarduerak **3 saiotan** antolatzen dira:

- 1. saioa (hasierakoa):** Komiki bakar bat klase osoan landuko da (aukeraketa irakaslearena izango da). Komikiaren egitura, narrazioa eta GJH kontzeptua ulertzeko erabiliko da.
- 2. saioa (garapena):** Ikasleek talde txikietan lan egingo dute (gainerako 5 komikiak landuz), irudiak aztertuz, koloreztatuz eta elkarrizketak osatuz.
- 3. saioa (amaiera):** Talde bakoitzak klase osoari bere komikia eta landutako GJHa aurkeztuko dizkio.

1. SAIOA (HASIERAKOA)

Taldea: Klase osoa.

Materiala (ikasleak): Aukeratutako komikiaren kopia bana.

Materiala (irakaslea): Aukeratutako komikiaren fitxa didaktikoa, saioa gidatzeko.

1.1. GJHEN AURKEZPENA

Denbora: 15 minutu

1.1.1. Aurretiazko ideiak aktibatzea (5 min)

Irakasleak galdera batzuk planteatuko ditu ikasleen aurretiazko ezagutzak identifikatzeko:

1. Zer dakizue Garapen Jasangarrirako Helburuei buruz?
2. Zein arazo global ezagutzen dituzue gaur egun?
3. Zein arazo ikusten dituzue zuen inguruan?

1.1.2. GJHen azalpen laburra (5 min)

Azalduko da GJHak NBERen 2030 Agendaren barruan kokatzen direla, eta mundu bidezkoago, jasangarriago eta inklusiboago bat eraikitzea dutela helburu.

1.1.3. Eztabaida gidatua (5 min)

Galdera-gakoak:

1. Zergatik dira beharrezkoak GJHak gaur egun?
2. Zein GJH lotzen duzu zure eguneroko bizitzarekin?
3. Zer egin dezakegu guk helburu horiek lortzen laguntzeko?

Oharra: Taldearen parte-hartzearen arabera, eztabaida luzatu daiteke.

1.2. KOMIKIAREN AURKEZPENA ETA IRAKURKETA

Denbora: 15 minutu

1.2.1. Aurkezpena: Irakasleak aukeratutako komikia aurkeztuko du (5 min).

1.2.2. Irakurketa: Komikia klase osoan irakurriko da (irakurketa gidatua) (10 min).

1.3. DIBULGAZIO ETA AZTERKETA JARDUERAK

Denbora: 20 minutu

Eztabaida gidatua egingo da:

1. Nortzuk dira protagonistak?
2. Zer arazo agertzen dira komikian?
3. Zer ondorio dituzte arazo horiek?
4. Zer konponbide proposatzen dira?
5. Nola lotzen dira konponbide horiek GJHarekin?
6. Gure inguruan antzeko egoerarik ezagutzen al dugu?
7. Zer mezu transmititu nahi du komikiak?

Saioaren amaieran, ikasleek landutako GJHari buruzko ideia nagusiak laburbilduko dituzte.

2. SAIOA: KOMIKIA OSATU (GARAPENA)

Taldea: Talde bakoitzak GJH bat landuko du (3-5 ikasleko taldeak).

Materiala (ikasleak)

- Komiki hutsa (elkarriketarik gabe).
- Jatorrizko komikia.
- Autoebaluazio eta koebaluazio fitxak.
- Informazioa bilatzeko baliabide digitalak edo irakasleak emandako materialak.

Materiala (irakaslea)

- GJH bakoitzari dagokion fitxa didaktikoa.
- Aurrez hautatutako informazio-iturri fidagarriak (webguneak, artikulak edo dokumentuak).

2.1. GJHARI BURUZ INFORMATZEA

Denbora: 20 minutu

2.1.1. Aurkezpena: Talde bakoitzak bere GJHaren izenburua jasoko du eta informazio fidagarria bilatuko du.

2.1.2. Ikerketa:

- Helburuaren esanahia.
- Adibide errealak.
- Tokiko edo gertuko egoerak.
- Arazo nagusiak eta konponbide posibleak.

Irakasleak ikasleei lagunduko die informazioa hautatzen eta interpretatzen.

2.2. KOMIKIA OSATZEA

Denbora: 20 minutu

2.2.1. Talde bakoitzak bere komikia jasoko du:

- Binetak eta irudiak aztertuko ditu.
- Elkarriketak sortuko ditu.

- Irudiak koloreztatuko dituzte (hala erabakitzen bada).
- Mezu nagusia argituko dute.

Jarduera honek lankidetzatza, sormena, komunikazioa eta pentsamendu kritikoa sustatuko ditu.

Oharra: Nahi izanez gero, komikia elkarrizketarik gabe baina koloreekin osatzeko aukera ere eman daiteke.

2.3. ALDERATZEA ETA AUTOEBALUAZIOA

Denbora: 10 minutu

2.3.1. Alderatzea: Talde bakoitzak sortutako komikia **jatorrizko komikiarekin alderatuko** du.

Helburua

- Informazioa osatzea.
- Antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzea.
- GJHari buruzko ulermena sakontzea.
- Konpetentzia-maila handiago batera iristea.

2.3.2. Ebaluazioa: Ikasleek hausnarketa hau Autoebaluazio Fitxan jasoko dute:

- Zer egin dugu ondo?
- Zer aldatuko genuke?
- Zer ikasi dugu GJHari buruz?
- Zer ikasi dugu talde-lanari buruz?
- Komikiak gaia hobeto ulertzen lagundu digu? Zergatik?

3. SAIOA: ZURE KOMIKIA AURKEZTU (AMAIERA)

Taldea: Talde bakoitzak bere komikia aurkeztuko du.

Materiala (ikasleak)

- Egindako komikiak.
- Ebaluazio tresnak: autoebaluazio fitxa, koebaluazio fitxa eta kontrol-zerrenda.

Materiala (irakaslea)

- Fitxa didaktikoak.
- Ebaluazio tresnak: errubrika analitikoa eta kontrol-zerrenda.

Komikiak aurrez digitalizatzea, aurkezpenetan pantaila handian euskarri bisual gisa erabiltzeko.

3.1. ABIAPUNTUA

Denbora: 5 minutu

Irakasleak saioaren helburua gogoraraziko du:

- Ikasitakoa partekatzea.
- GJHen arteko loturak identifikatzea.
- Ikaskideen lanetatik ikastea.

3.2. AURKEZPENAK

Denbora: 30 minutu (4-5 minutu talde bakoitzeko)

Talde bakoitzak honako alderdi hauek azalduko ditu:

- Komikiaren titulua.
- Landutako GJHa.
- Istorioaren laburpena (gatazka, garapena eta amaierako mezua).
- Azaldutako arazoa.
- Proposatutako konponbideak.
- Gako zientifikoak (baliabideak, inpaktuak, datuak edo azalpenak).
- Lotura pertsonala edo tokikoa.

Aurkezpen bakoitzaren amaieran, gainerako ikasleek galdera azkar bat egin ahal izango dute.

3.3. "GALLERY WALK" AZKARRA

Denbora: 5 minutu

Komiki guztiak gelan edo pantailan erakutsiko dira. Ikasleek post-it edo ohar laburrak utziko dituzte (hobekuntza-proposamen bat eta partekatzeko ideia interesgarri bat); gero, denon artean irakurriko dira.

3.4. HAUSNARKETA KOLEKTIBOA

Denbora: 5 minutu

Irakaslearen gidaritzapean:

- Zein lotura ikusi dituzue GJHen artean?
- Zer ikasi duzue beste taldeen lanetatik?
- Zer ohitura txiki alda ditzakegu aste honetan?

Amaierako galderak:

- Zer ikasi dut gaur?
- Zer egingo dut desberdin hemendik aurrera?
- Zein GJH sentitzen dut gertuen nire eguneroko bizitzatik?

3.5. EBALUAZIOA

- Heteroebaluazioa – **errubrika analitikoa**: komikiaren kalitate orokorra eta ahozko aurkezpenaren zorrotasuna ebaluatzeko. (KE1, KE2, KE3, KE4, KE5 eta KE6; irakaslea).
- Koebaluazioa – **koebaluazio fitxa**: beste taldeen ahozko aurkezpena, komunikazioa eta mezuaren argitasuna baloratzeko. (KE4; ikasleak).
- Autoebaluazioa – **autoebaluazio fitxa**: ikasleak bere parte-hartzea, ikaskuntza-prozesua, informazioaren ulermena eta jasangarritasunarekiko hausnarketa baloratzeko. (KE1, KE2 eta KE5; ikaslea).
- Ahozko aurkezpenaren **kontrol-zerrenda**: ahozko komunikazioa eta aurkezpenaren antolaketa baloratzeko. (KE4; irakaslea eta ikasleak).